

nabarmen. «Arazoetariko bat dirua izan daiteke, zeren ez baitugu oraino lortu, nahiz eta helburua den, doakotasuna; erran nahi baitu Euskal Herrian bizi den batek ez lukeela euskara ikasteko bere sakelatik dirurik atera behar. Baina oraino hainbat ekimeni esker, izan Korrika, izan gure jarduerari esker, lortzen dugula erran daiteke urteko saria ahal bezain apal mantentzea, formakuntza arruntean baino anitzez apalagoa. Baina hori baldin bada –edo izan daiteke– oraino jende batzuendako zailtasun bat, guk horretan eragin behar dugu, ipar gisa hartu, atxiki gogoan doakotasuna eskaintzea. Ez da baitezpada ikastaroak urririk eskaintzea, baizik eta ez dezala kurtso saria norberak ordain, baizik eta diru publikoak, dirulaguntzetatik atera. Badira beka sistema batzuk edo horrelako gauzak, baina hori ez da gure esku, hori hizkuntza politika baten osagaia da. Eta Ipar Euskal Herrian ez gara zoritxarrez oraino horretan; beraz, segitzen dugu hori eskatzen, jendea lagundua izan dadin bere ikasketak ordaintzeko. Eragile publikoen esku da».

Uste izatekoa da irakasleen eta euskaltegietako langileen lansari eskasak ere ez duela beren lana errazten. «Hori erranen nizun, baina hori ttipikeria da. Egia da, soldataren aldetik, hara, ez da erakargarri AEKn irakasle edo langile izatea, argi eta garbi. Ez du gazte batek bere karrera edo lanbide plana egiten AEKn. Ez dakit hori errateak zerbait hobetuko duen, baina ez, ez dugu gure

lanaren heineko lansaria biltzen; hala ere, denek, langile guziek, dugu gogoan erakunde baten eramaile garela eta erakunde hau eta dituen misio eta balio guziak bururaino eramatea, erran nezake bizirik iraunaraztea, gure soldata apal horren bitartez eginen dela. Hala ere, egia da hilabete sariak ez ditugula duinak, baina horrek ez du gure jardueran eragiten».

Hain zuzen ere, misio horren, balio horien aldeko jardunak berdintzen du lan baldintzen zailtasun hori: «Bai, eta gure misio horretan sinisten baitugu ere, eta militantzian ibiltzen baikara, eta Euskal Herri euskaldun baten alde lan egiten den ber, jakina da, gure motibazioa hor baita».

Ikasleen tipologiari dagokionez, askotarikoa da, eta haien motibazioa bi motatakoa nagusiki. «Oro har, kanpotik jiten diren jende horiek duten helburua, edo adierazten duten lehen helburua, integrazioa da. Heldu diren lurralde horretan nahi dutela integratu eta integrazioa hizkuntzaren bitartez egiten dela erraten dute. Euskal Herrian integratu eta euskaldunekin komunikatu nahi dute. Haatik, hemen sortu direnek, erran nahi baitu euskal jatorria duten ikasle horiek, gehienbat transmisioa dute helburu. Beren sustraiak, nortasuna berriz atzematea eta dituzten edo ukanen dituzten haurrei euskara ematea. Eta gero heldu da lana atzeman edo aldatzea, baina ez da gau eskoletan ditugun ikasleen helburu nagusia».

AMAIA PUENTE ETA LURDES GAUNA

«Gure ahulezia erabilera da, ez da erabiltzeko beharra ikusten»

Bizkaiko mendebaldean, Burgos eta Kantabriarekin muga egiten duen Enkarterri berde eta industrializatuan, Kadagua inguruko haranek aspaldian galduak zituzten bertoko azken euskal hiztunak abertzale eta euskaltzale talde batek hizkuntza berreskuratzeko ibilbidea hasi zuenean. «Hau guztiz erdalduna zen, euskaldun bat heltzen zen eta ‘el vasco’ edo ‘la vasca’ esaten zioten. Imajina ezazu panorama zein zen. Hasierako ikasle haiek bereziak ziren», aipatu du Lurdes Gaunak. Nabarmendu duenez, ilusioak bultzatuta hurbiltzen ziren ikasle haiek euskara eskoletara, «eskola orduetatik kanpo beste edozein jardueratan parte hartzeko prest». Azken 44 urteak euskara irakasten eman dituen zallarrak 1987an AEKn eskolak ematen hasi zen Amaia Puente beste irakasle beterranoa dauka ondoan. Biak bat datoz esatean gauzak asko aldatu direla, orain askoz akademikoagoa dela dena, ez hain militantea, eta aldi berean ez hain komunitarioa, baina erronka, euskalduntzen jarraitzea, hor dago oraindik, euskaldun izan arren euskaraz egiten ez duen gazteriari begira, batez ere.

Elkarriketan, iragana eta oraina askotan uztartzen dira, egungo egoeraren oinarrian irakasleek, ikasleek eta euskararen alde beti esku bat botatzeko prest egon ziren haiek osatutako komunitatearen ahalegin handia dagoelako.

Euskara desagertua zegoen paisaia hartan, frankismoaren

debekuari amaiera eman eta euskara ikasteko gogoak baino ez zeudenean gau eskolak antolatzea izan zen lehen urratsa, eta apur bat beranduagotik hona AEK izan da eskolak ematera gutxitan mugatu diren ahaleginen aterpea. Hasierako gau eskola haiek antolatzea ez zen erraza izan, baina «ilusio eta militantzia dosi handiak» zeuden. «Jende askok eman zuen izena, baina ez zeukan dirurik; udalaren laguntza eskatzen genuen baina ez zen oso handia izaten». Irakasleak topatzea ere beste zailtasun handi bat zen, aipatu dutenez. «Garai hartan, gelak beterik zeuden, eskoletako gelak erabiltzen ziren eta oso gela handiak ziren, ume asko zegoelako gela bakoitzean, 20 lagun egon zitezkeen».

Eskoletan hasi berria zen D ereduko irakasle batzuekin hitz egin zuten ea lana amaitu ondoren eskolak emateko prest egongo ziren, eta horrela jaio ziren gau eskola haiek. Gero AEKn sartzeko aukera heldu zen. «Baldintza bakarra jarri ziguten, ez dirurik ezta zorrik ere», eta orduan hasi zen abentura eder bat metodologiarik gabe, edo «Fanta metodoarekin», hobeto esanda, horrela esaten baitzioten «Ni naiz, zu zara, hura da...» bezalako gutxieneko eduki batzuk jasotzen zituen liburuxkari, Fantaren iragarki laranja ahaztezina zeukanari. «Fanta metodoa» izenarekin geratu zen.

Eskolak txiki geratu ziren espazio eta ordutegi askeago bat zuen proiekturako, eta beste borroka bat heldu zen lokalak

lortzeko. Lurdes Gaunak «mikroistorioak» deitzen dituen horietan sartzen dira espazioa lortzeko egin zuten itxialdia eta «kafea eta pastak» dastatuz itxialdiari aurre egiten zioten haien aurrean Ertzaintzak Enkarterrin izan zuen estreinaldia.

Mobilizazioei erantzunez, oso egoera kaskarrean zegoen maristen ikastetxea utzi zieten, eta horrek ere zaharberritzea eskatzeko mobilizazioak ekarri zituen, Jose Antonio Ardanza



lehendakariaren beraren aurrean, adinekoen egoitzaren inaugurazioa egitera joan zenean. Irakasleek eurek, ikasleek eta lagunen lagunek esku bat botata euskaltegi baten itxura hartzen joan zen eraikina. Beraz, ingurura begiratuta, asko dira bere historia duten elementuak: baten senargaiak egindako mahaia, beste norbaitek egindako esekitokia... «Fotokopiagailu zahar bat ekarri ziguten. Behin lapurtzera sartu zitzaizkigun eta ohar bat utzi zuten haren gainean, *‘dejamos la fotocopiadora para la causa’* zioen, tramankulu itzela zen», gogora ekarri dute barre artean.

Ibilbide gogorra izan da, eta lanik ez da falta izan, Korrika, AEKanpada, AEK Eguna, jaietako txosnak, zozketak... «militantzia

gordina zen». «Garai hartan ez zegoen ordutegirik, eta eskolak amaitutakoan oraindik pote bat hartzera joaten ginen, egunpasak egiten genituen, asteburuko egonaldiak...», azpimarratu dute. «Gelatik kanpoko jarduera horiek helburu bikoitza zuten, bizitza errealean praktikatzea eta jendeak ikustea posiblea zela euskaraz aritzea, nahiz eta hasieran denak guri begira geratzen ziren», gogora ekarri du Gaunak.

«AEK-ko irakasleak euskararen aldeko gudariak ziren, ez da laudorio bat esateagatik, gogoratu behar da zer baldintzatan zeuden, epikoa zen, eta Enkarterrin eta Euskal Herri osoan kontuan hartzekoa», erantsi du Juan Mari Santisteban «Txomin»-ek, egun AEK-ko ikasle denak eta urteetan ahalegin horretan laguntzen aritu

denak.

Gaur egun egoera nabarmen aldatu da, baina bide luzea falta da oraindik Enkarterrin euskara normalizatzeko. Kanean euskara entzutea ohikoena ez bada ere, ez da arraroa. Batez ere guraso gazteen artean entzuten dela diote. Urratsak egin dira, dudarik gabe, eta, halere, ez da erraza euskaraz komunikatzeko beharrik ez zegoen eta ez dagoen eremu batean. Garai batean indar handiagoa zuen gogoak, nahiak, euskara ikasteko irrikak. Orain inguratzen gaituen errealitatea ere bestelakoa da. Lehen euskaraz bizi ahal izatea zen helburua. Egun, gazte gehienek eskolan ikasi dute euskara. Beraz, titulu bat lortzea da gazte horietako asko euskaltegira eramaten dituenak, baina euskaltegia askoz gehiago

izan da beti eta jarraitzen du izaten.

Gaunak eta Puentek azaldu dutenez, adin guztietako ikasleak daude orain, baita jubilatuen ere. Askotan batzuen eta besteen interesak ez dira berdinak izaten, eta zaila da biak uztartzea. Titulua ateratzeko azterketa gainditu nahi duenak eskolak helburu horretara bideratzea nahi du, baina euskara ikasteko presarik ez duten horien artean, batez ere hitz egitea maite dute... eta bide batez harremanak egitea, bizitzan helburuak finkatu eta horietan zentratzeko ere balio duelako euskaltegiak, nolabaiteko efektu terapeutikoa osatuz.

Enkarterriko AEK-k Zallan du egoitza nagusia, eta eraikin bera Udal Euskaltegiarekin eta Helduen Hezkuntzako (HHE) gelekina partekatzen dute. Egun 126 ikasle ditu AEK-k eta ikasleen profila askotarikoa da. Matrikulazioa ez da duela urte batzuetakoa. Eraikin berean Udal Euskaltegia izateak euskalduntzeko proiektu bien arteko nahasmenak sortzen ditu sarritan. Pentsa zitekeen jada zerotik hasi behar duenik ez dagoela, baina ez. Argitu dutenez, oraindik badaude hitz solteak soilik ezagutzen dituztenak. Gehienak atzeritik etorritako lagunak dira, baina zerotik hasi beharreko euskalduntze prozesu horien eskaera egon badago eta sortzen denean erantzuna ematen zaio. Gauza da gaur egun badela Enkarterrin euskara hutsez bizi den jendea. Laster Korrika helduko da eta batez ere jai giroa pizten dela diote, euskara gehiago entzun ahal da, baina gero «inertzia» itzultzen da, «eskualdearen ahulezia erabilera da, ez dute beharra ikusten». Alde positiboari erreparatuta, ordea: «Gazte gehienak euskaldunak dira, komunikatzeko gaitasunak dituzte nahiz eta ez erabili, erabili behar badute egun batean erabiliko dute».



Argazkia: Oskar MATXIN

«Gazte gehienak euskaldunak dira; nahiz eta orain ez erabili, gazte gehienek euskaraz konuniatzeko gaitasunak dituzte, eta erabili behar badute egun batean erabiliko dute»